

"Hay sitio en nuestra posada. Alkartuta".

2026KO GABONETAKO KANPAINARAKO ORIENTABIDEAK

Orientabide hauen helburua da Caritas Bizkaiak bultzatutako 2026ko Gabon Kanpainaren garapenean parrokiei, Pastoral Barrutiei eta kristau-elkarteei laguntzea.

Dokumentu honek kanpainaren **oinarrizko ideiak, esparru teologikoa eta ildo pedagogikoak** laburbiltzen ditu, komunitateko dinamizatzaileak eta eragile nagusiak kokatu eta inspiratzeko helburuarekin. Edukien bidez proposamenaren ikuspegi orokorra eskaintzen da, talde eta komunitate bakoitzak bere inguruan ekintzak egokitu eta sustatu ahal izan ditzan.

Ebanjelioko pasarte honetan inspiratuta: «Ez zen lekurik ostatuan» (Lk 2,7), kanpainak honako lelopean biltzen gaitu: « **Hay sitio en nuestra posada. Alkartuta** ». Gure inguruan dauden babesgabetasun eta bakardade egoeren aurrean, kristau-komunitateak berriz ere baieztatzen du babesleku, harrera bizi eta pertsona zaurgarrienentzat pertenentzia-gune izateko deia.

Orientabide hauekin batera, kanpainako gainerako materialak ere (kartela, laguntza liturgikoak, Caritas Bizkaia-ko zuzendariaren gutunaren azalpen-oharra eta kanpainaren aurkezpena) eskuragarri egongo dira kontsultarako eta deskargarako Caritas Bizkaiaren webgunean: www.caritasbi.org.

KANPAINAREN LELOA: *"Hay sitio en nuestra posada. Alkartuta".*

Alkartuta da kristau-komunitatea munduko sufrimenduaren aurrean **babesleku** eta **erantzun** bihurtzeko modua.

Caritas Bizkaiaren 2026ko Gabon Kanpainaren leloa Lukasen Ebanjelioan oinarritzen da: **«Ez zen lekurik ostatuan» (Lk 2,7).** Pasarte hartako babesgabetasuna gaur ere gure inguruan errepikatzen dela ikusita, Caritas Bizkaiak eta kristau-komunitate osoak aldarrikatzen dugu gure ostatuan lekua dagoela (**"hay sitio en nuestra posada**"), gure parrokietan, auzoetan eta proiektuetan, pertsona zaurgarrienentzako babes, harrera, entzute eta pertenentzia gune gisa.

Ospakizun garai honetan, Bizkaiko Elizako kristau-komunitateok **anaitasunezko konpromisoa berritzen dugu**, Gabon hauetan **komunitatearen ostatuak ateak zabalik eta mahaia prest** izango dituelako esperantzaz, pertsona guztiak hartzeko.

BABESLEKU ETA HARRERA IZAN

«Jauna pobrearen babeslekua da» (Sal 14,6). Mezu horrekin hasten du Leon XIV.a Aita Santuak **Pobreen Munduko X. Jardunaldirako mezua**. Eguneroko bizitzan transzendentziaren zentzua galtzeak egunero ikusten dugun gizarte-bidegabekeria sakona eragiten du. «*Jainkoaren faltak pertsonak elkarren ondoan egon beharrean, batzuk besteen gainetik jartzen ditu, menderakuntza eta menpekotasunaren zeinupean*».

Bere mezuan, Aita Santuak gogorarazten digu Jesusen bidez Jainkoa babesleku bihurtzen dela gizarte honek baztertzen dituen eta Jainkoaren seme-alaba diren aldetik gizaki orok duen duintasun besterenezina aitortzen ez dien pobrezia-egoeran dauden pertsonentzat. Jesusek gure zaurgarritasuna partekatzen du gurutzeraino, eta ogia eta hitza kendu zaizkien pertsonei izena eta duintasuna itzultzen dizkie. «*Zatozte niregana, nekatuta eta zamatuta zaudeten guztiok, eta atseden emango dizuet*» (Mt 11,28). Horrela, *"Jesusen baitan, Jainkoak ez du pobrezia soilik babesten; giza pobrezia bere egiten du gurutzeraino"*

Jesusi jarraitzeak **pertsona bakoitzari** dei egiten dio «*geure burua pobre egiteko eta pobrearentzat babesleku bihurtzeko*». Dei hori ez da soilik pertsonala; **komunitarioa** ere bada: kristau komunitatea Jesusen eredua jarraitzera deitua dago; izan ere, «*Eliza, bere izaeragatik, pobrea izatera eta pobreentzat babesleku izatera deitua dago*». Pertsonak dauden lekura iristea, haiei entzutea, haiekin komunitatea egitea eta bizitza, bidea, sufrimendua eta itxaropena partekatzea.

Babesleku eta harrera izatea ez da leku fisiko bat izatea; elkarrekin ibiltzeko modu bat da, komunitatea eraikitzeko modu bat. Horrela, gure komunitateak eta gutako bakoitza egiazko argiaren lekuko izango gara.

Gonbidatzen zaituztegu Abendualdi eta Gabon garai honetan gure otoitzak, gogoetak eta konpromisoak hausnartzera eraman gaitzan, geure buruari galdetuz zenbateraino besarkatzen ditugun xumetasuna eta pobrezia, eta zenbateraino garen, pertsonalki nahiz komunitate gisa, gure inguruan pobrezia- eta bazterketa-egoeran bizi diren pertsonentzat babesleku eta harrera. Eta hortik abiatuta, gure bizitzak eta komunitateak gero eta abegikorragoak diren espazio bihurtzera.

SINBOLOAK: OSTATUA, ATEA, ARGIA ETA MAHAIA.

Gure inguruneetan lekurik aurkitzen ez duten pertsonentzat babesleku eta harrera izateko dei hau lau sinboloren bidez laburbiltzen dugu: ostatua, atea, argia eta mahaia. Sinbolo horiek kanpainaren kartelean ageri dira, aldi honetan guztian gogoan izan ditzagun.

1. **Ostatua**: Inori sarrera ukatzen ez dion babes, segurtasun eta anaitasuneko egitura komunitarioa adierazten du.
2. **Atea**: Komunitatearen irekitasuna, aurreiritziak eta hesiak gainditzeko gaitasuna eta iristen dena hartzeko prestutasuna irudikatzen ditu.
3. **Argia**: Kristau-itxaropena, pobreziaren errealitate ezkutuak argitzea eta topaketaren berotasuna adierazten ditu.
4. **Mahaia**: Berdintasunean esertzen diren pertsonen arteko senidetasuna, bizitza bihurtutako Eukaristia eta ospakizun partekatua sinbolizatzen ditu.

Abendualdian zehar bidean jarri den Jainkoa hartzeko prestatzen gara, gure giza izaera bere argi eta itzalekin bere gain hartuz gorpuztu den Jainkoa. Aldi honetan kanpainako sinboloetan barrena ibiliko gara.

Horretarako, Caritasek eta Pastoral Ordezkaritzek sentsibilizazio-material bateratua proposatzen dute: egun bakoitzerako proposamenak jasotzen dituen Abendualdiko egutegia eta elkartasunezko ipuin-lehiaketa bat, katekesian, ikastetxeetan eta taldeetan parte hartzen duten haurrei zuzendua. Material hori Bizkaiko Elizbarrutiaren webgunean egongo da eskuragarri: www.bizkeliza.org.

Jainkoaren Hitza eta Jesusen testigantza hartzeak, azken batean, Jainkoak pertsona zaurgarrienen alde duen lehentasuna onartzea dakar, pobrezia eta bazterketa pairatzen dituztenen aldekoa. Neurririk gabeko eta doako maitasunetik egiten den harrera da hori, gure komunitateen eta gure Elizaren oinarria dena.

Utz diezaiogun hitz horri gaur egun gauzatzen eta betetzen, bakean, senidetasunean eta ahizpatasunean oinarritutako mundu baten jaiotzaren bidez. Egin diezaiogun tokia gure ostatuetan, gure bizitzetan eta gure komunitateetan.

ZER EGIN DEZAKEZU ZUK

Gabonak berrikuntza garaia ere badira. Horregatik, kanpainarekin bat datozen hainbat proposamen egiten ditugu.

Ostatua prestatu babesleku eta harrera izateko: Banaka zein komunitatean berrikusi harrera eragozten duten aurreiritziak, bazterkeriazko jarrerak edo axolagabekeriak.

- **Garbitu bihotza eta burua:** konturatu zeure aurreiritziez, estereotipoez, kontsumismoaz eta babesleku izatetik urruntzen zaituzten jarrerez.
- **Ez pasa aurrera begiratu gabe**. Gelditu eta eskaini denboraren tarte bat beste pertsona batzuez interesatzeko, haiei entzuteko: zer gertatzen zaien, zer sentitzen duten, zer behar duten eta zer adierazi nahi dizuten entzuteko. Hitz egin, eta ez izan presarik.
- **Utzi zeure burua eraldatzen mundua eraldatzeko.** Pertsona konprometitua izatea munduan egoteko eta bizitzeko modu bat da, bizitza ulertzeko eta partekatzeko era bat; senidetasuna eta errukia eraikitzen dituena, zure bidean aurkitzen duzunari entzun, arreta eman eta sendatzeko gai izan zaitezen.

Ateak irekitzea: Norberaren inguruan edo auzoan dauden bazterketa-egoerak agerian jartzea eta elkartasuna praktikan jartzea.

- **Ireki gogoa eta aldatu begirada** parte garen munduaren beste errealitate hori ikusteko: eskubide berberak eskuratu ezin dituzten hainbeste pertsonena, gizarte-desabantailan daudenena eta tristuran, bakardadean eta pobrezian bizi direnena.
- **Partekatu** dauzkazun eta zarena osatzen duten ondasunak; sustatu irekitasuna, eskuzabaltasuna eta konfiantza. Ez zaitzala mugiarazi edukitzeko eta bizitza ziurtatzeko grinak. Aska zaitez mendekotasun eta atxikimenduetatik, izatearen alde eginez eta edukitzeari uko eginez. Benetako poza ematean eta norbera ematean datza. Egin boluntariotza, eman zure denbora, egin zaitez Caritasen bazkide eta elkarlanean aritu ekimen solidarioetan.
- **Zaindu etxe komuna:** bat egin zaintzaren kulturarekin eta egin eguneroko keinu bakoitza pertsonen eta planetaren aldeko zure konpromisoaren adierazgarri. Zure egitasmoek beti izan ditzatela kontuan giza familia osoarengan dituzten ondorioak, bai gaur egungoak bai etorkizunekoak, arretaz baloratuz.

Argia piztu: Landu zure fedea komunitatean, dena aldatzen eta eraldatzen duen Jainkoaren maitasuna esperimentatzeko. Zure fedearen bidez, aurki itzazu hazten jarraitzeko aukera emango dizuten erronka berriak.

- **Meditatu**, sartu zure barnean Jainkoa aurkitu eta sentitzeko. Praktikatu isiltasuna eta kontenplazioa.
- **Egin otoitz**, komunitatean nahiz bakarka; hartu Jainkoak oparitzen diguna, kontenpla ezazu natura eta egin Ebanjelioaren bidezko kontenplazioa.
- Itxaropena: **izan argi, itxaropen eta Berri On**a zure inguruko pertsonentzat eta kide zaren komunitatearentzat.
- **Ospatu komunitatean:** parte hartu Eukaristian.

Mahaian esertzea: Gabon garaian harrera zehatza, gertuko laguntza eta ospakizun partekatua sustatzea.

- **Hartu pertsonak** zure epaiaren, baldintzen edo oztopoen iragazkirik gabe. Harritu zaitez beste pertsonen edertasunaz, beren trebetasunaz, eskuzabaltasunaz, ausardiaz eta dohainez... eta eskertu jasotzen duzuna.
- Sortu **topaguneak** zure komunitatean: zaindu benetan garrantzitsua dena. Eskaini denbora entzuteko, pertsonekin konektatzeko, bizi dituzten egoerekin enpatizatzeko, ingurunea zaintzeko eta elkartu, harremanak izan eta elkar aitortzeko espazio komunak sortzea errazteko.
- **Erreparatu zure mahaian jartzen duzunari**: egin kontsumo jasangarri, arduratsu eta etikoa. Kontsumitu modu arduratsuan; hartu kontsumo jasangarriko ohiturak, berrerabili, birziklatu eta aprobetxatu baliabideak berriz. Egin apustu ekonomia solidarioko erakundeen alde (Koopera, Kidenda, Lapiko, Fiare, Zaintzalan, eta abar).

ORACIÓN

Señor Jesús,
Tú que bajas hasta "los últimos"
y te haces pobre con quienes sufren,
enséñanos a mirar sus rostros,
aprender sus nombres
y escuchar sus sueños.
Que las personas empobrecidas
no sean solo destinatarias de nuestra ayuda,
sino protagonistas de su historia,
sujetos de esperanza
y evangelizadoras.
Haz de nuestras comunidades
refugio abierto y casa común
donde compartamos talentos,
cuidemos la vida
y nadie quede en los márgenes.
Danos valentía para transformar
leyes, decisiones y estructuras
que generan desigualdad,
y cultivar una cultura del cuidado
y de la dignidad.
Como tantas y tantos santos,
queremos conocer a Jesucristo,
caminar en el Espíritu
y compartir la Buena Noticia con quienes sufren.
Que caminemos en comunidad,
compartiendo aprendizajes
y haciendo posible
la esperanza y la fraternidad.

Oración diocesana para la Jornada Mundial de los pobres. 2026

Jesus Jauna,
azkenenganaino jasten zarana,
eta sufritzen dagozanakaz pobre
egiten zarana,
erakutsi eurei begiratzen,
euren izenak ikasten,
eta euren ametsak entzuten.
Pobreak ez daitezala
gure laguntzaren hartzaile huts izan,
euren historiako protagonista baino,
itxaropenaren eragile
eta ebanjelizatzaile gure artean.
Gure alkarteak benetako gordeleku
eta etxe izan daitezala danontzat,
talentuak batera jarri eta bizia zaindu dagigun
eta inor kanpoan geratu ez daiten.
Emoiguzu ausardia lege, erabaki
eta egiturak eraldatzeko,
eta zaintza eta
duintasunaren kultura lantzeko.
Hainbeste santu eta santak lez,
Jesukristo ezagutu gura dogu,
Espirituarengan ibili
eta pobreei Barri Ona iragarri.

Euren bidelagun izan gaitezala,
eurengandik ikasi dagigula
eta, alkarregaz, egia bihurtu dagigun
itxaropena eta senidetasuna..

2026ko Pobreen Munduko Egunerako Elizbarrutiko Otoitza



"Hay sitio en nuestra posada. Alkartuta".

ORIENTACIONES PARA LA CAMPAÑA DE NAVIDAD 2026

Estas **Orientaciones** tienen como finalidad acompañar a las parroquias, Unidades Pastorales y comunidades cristianas en el desarrollo de la Campaña de Navidad 2026 impulsada por Caritas Bizkaia.

El presente documento sintetiza las **ideas fundamentales, el marco teológico y las líneas pedagógicas** de la campaña con el objetivo de situar e inspirar a las personas dinamizadoras y a agentes clave de la comunidad. A través de sus contenidos, se ofrece una visión global de la propuesta para que cada equipo y comunidad pueda animar y adaptar las acciones en su entorno cercano.

Inspirada en el pasaje evangélico «no había sitio en la posada» (Lc 2, 7), la campaña nos convoca bajo el lema **«Hay sitio en nuestra posada. Alkartuta»**. Ante las realidades de desamparo y soledad de nuestro entorno, la comunidad cristiana reafirma su vocación de ser refugio, espacio de acogida viva y lugar de pertenencia para las personas más vulnerables.

Junto a estas orientaciones, el resto de materiales de la campaña (cartel, auxilios litúrgicos, nota explicativa carta de la directora de Cáritas y la presentación de la campaña) estarán disponibles para su consulta y descarga en la página web de Caritas Bizkaia: www.caritasbi.org.

EL LEMA DE LA CAMPAÑA: *"Hay sitio en nuestra posada. Alkartuta".*

Alkartuta es la manera en que la comunidad cristiana se convierte en **refugio** y **respuesta** ante la realidad sufriente del mundo.

El lema de la campaña de Navidad 2026 de Caritas Bizkaia se basa en el texto del Evangelio de Lucas: **"No había sitio en la posada" (Lc, 2-7).** Ante el desamparo de aquel pasaje, que hoy en día se repite en nuestro entorno, Caritas Bizkaia y toda la comunidad cristiana decimos que **"hay sitio en nuestra posada**", en nuestras parroquias, en nuestros barrios, en nuestros proyectos, como lugares de refugio, acogida, escucha y pertenencia para las personas más vulnerables.

En este tiempo de celebración, las comunidades cristianas de la Iglesia en Bizkaia **renovamos nuestro compromiso fraterno,** con la esperanza de que en esta Navidad la **posada comunitaria mantenga sus puertas abiertas y su mesa dispuesta** para acoger a todas las personas.

SER REFUGIO y ACOGIDA

"El Señor es el refugio del pobre" (Sal. 14,6). El Papa León XIV comienza con este salmo su **mensaje para la X Jornada Mundial de los Pobres**. La pérdida del sentido de trascendencia en la vida cotidiana se traduce en una profunda injusticia social que constatamos día a día. *"La ausencia de Dios coloca a las personas ya no unas junto a otras en el respecto recíproco, sino unas por encima de otras bajo el signo del dominio y del sometimiento"*.

En su mensaje, el Papa nos recuerda que, a través de Jesús, Dios se convierte en refugio para las personas empobrecidas a las que esta sociedad rechaza no reconociéndoles la dignidad inalienable de todo ser humano como hijo e hija de Dios. Jesús comparte esta vulnerabilidad humana hasta la cruz y devuelve el nombre y la dignidad a quienes han sido despojados de pan y palabra. *"Vengan a mí todos los que están cansados y agobiados, y yo los aliviaré"* (Mt 11, 28). Así, *"en Jesús, Dios no sólo protege, sino que comparte la pobreza humana hasta la cruz"*

El seguimiento de Jesús nos llama a **cada persona** a *"hacernos pobres y a convertirnos en refugio para el pobre"*. Este llamamiento no es solo personal, también es **comunitario**: la comunidad cristiana está llamada a seguir el ejemplo de Jesús, "*la Iglesia, por su naturaleza, está llamada a ser pobre y refugio para los pobres"*. Llegar a donde se encuentran, escucharlas, hacer comunidad con ellas, compartir vida, camino, sufrimiento y esperanza con ellas.

Ser refugio, acogida no es un lugar físico, es camino compartido, una manera de vivir y de construir comunidad. Así, nuestras comunidades y cada persona seremos testigos del que es la verdadera luz.

Os invitamos a que en este tiempo de Adviento y Navidad nuestra oración, reflexión y compromiso nos sirva para cuestionarnos hasta qué punto abrazamos la sencillez y la pobreza y somos, personal y comunitariamente, refugio y acogida para las personas que en nuestro entorno viven en situación de pobreza y exclusión. Y desde ahí convertir nuestras vidas y comunidades en espacios más acogedores.

LOS SIMBOLOS: LA POSADA, LA PUERTA, LA LUZ Y LA MESA.

Resumimos en cuatro símbolos esta llamada a ser refugio y acogida de quienes no encuentran lugar en nuestros entornos: la posada, la puerta, la luz y la mesa. Estos símbolos se encuentran en el cartel de la campaña, para que los tengamos presentes en todo este tiempo.

1. **La posada**: Representa la estructura comunitaria de cobijo, seguridad y fraternidad donde no se niega la entrada a nadie.
2. **La Puerta**: Simboliza la apertura de la comunidad, la superación de prejuicios y barreras, y la disposición a recibir a quien llega.
3. **La Luz**: Encarna la esperanza cristiana, la iluminación de las situaciones invisibilizadas de pobreza y la calidez del encuentro.
4. **La Mesa**: Representa la fraternidad en torno a la cual todas las personas se sientan en igualdad, la Eucaristía hecha vida y la celebración compartida.

A lo largo del tiempo de Adviento nos preparamos para recibir activamente a Dios que se ha puesto en camino, que se encarna asumiendo nuestra condición humana con sus luces y sus sombras. En este tiempo recorremos los símbolos de la campaña.

Para ello, Cáritas y las Delegaciones de Pastoral proponen un material conjunto de sensibilización que nos acompañará en este tiempo: Un calendario de adviento con propuestas para cada uno de los días y un concurso de cuentos solidarios con el mismo enfoque que la compaña dirigido a niños y niñas de distintos ámbitos eclesiales (catequesis, centros educativos, grupos, etc…). Este material estará disponible en la web de la diócesis: www.bizkeliza.org

Acoger la palabra de Dios y el testimonio de Jesús, en definitiva, supone acoger la preferencia de Dios por las personas más vulnerables, por quienes sufren pobreza y exclusión. Acogida desde un amor gratuito y sin medida que fundamenta nuestras comunidades y nuestra Iglesia.

Dejemos que esa palabra se realice y se cumpla hoy con el nacimiento de un mundo en paz, en fraternidad y sororidad. Hagamos sitio en nuestras posadas, en nuestras vidas, en nuestras comunidades.

QUE PUEDES HACER TU

Navidad es también tiempo de renovación, por ello, ofrecemos algunas propuestas de acciones sintonía con la campaña:

Preparar la posada para ser refugio y acogida: Revisa individual y comunitariamente los prejuicios, actitudes de rechazo o indiferencias que bloquean la acogida.

- **Limpia tu corazón y tu mente:** cae en la cuenta de tus prejuicios, estereotipos, consumismos y actitudes que te alejan de ser refugio.
- **No pases de largo**. Detente y dedica un rato de tu tiempo para interesarte por otras personas, para escuchar lo que les pasa, lo que sienten, lo que necesitan, lo que quieren expresarte. Dialoga, no tengas prisa.
- **Déjate transformar para transformar el mundo.** Ser una persona comprometida es un modo de ser y estar en el mundo, de entender la vida y compartirla creando fraternidad, compasión para poder escuchar, atender y sanar a quien se encuentra en tu camino.

Abrir las puertas: Visibiliza las realidades de exclusión presentes en el propio entorno o barrio y practicar la solidaridad.

- **Abre la mente y cambia la mirada** para ver esa otra realidad del mundo de la que formamos parte: la de tantas personas que no pueden acceder a los mismos derechos, de quienes están en desventaja social y que viven en la tristeza, la soledad y la pobreza.
- **Comparte** los bienes que tienes y eres, genera apertura, generosidad y confianza. Que no te mueva el afán de tener y asegurar la vida. Suelta dependencias y apegos apostando por el ser y renunciando al tener. La verdadera alegría consiste en dar y en darse. Haz voluntariado, dona tu tiempo, hazte socio/socia de Caritas, colabora con iniciativas solidarias.
- **Cuida la casa común:** Súmate a la cultura del cuidado y haz que cada gesto cotidiano sea muestra de tu compromiso por las personas y el planeta. Que tus planes siempre tengan en cuenta sus efectos sobre toda la familia humana, sopesando las consecuencias presentes y futuras.

Encender la luz: Cultiva tu fe en comunidad para experimentar el amor de Dios que todo lo cambia y lo transforma. Descubre a través de tu fe nuevos retos con los que seguir creciendo.

- **Medita**, entra en tu interior para descubrir y sentir a Dios. Practica el silencio y la contemplación.
- **Reza**, ora en comunidad e individualmente, acoge lo que Dios nos regala, contempla la naturaleza, haz contemplación con el evangelio.
- Esperanza: **se luz, esperanza y Buena Noticia** para las personas de tu entorno y para la comunidad a la que pertenezcas.
- **Celebra** en comunidad: participa de la eucaristía.

Sentarse a la mesa: Promueva la acogida concreta, el acompañamiento cercano y la celebración compartida durante las fiestas navideñas.

- **Acoge** a las personas sin poner el filtro de tu juicio, tus condiciones, tus barreras. Sorpréndete de la belleza de otras personas, de su ingenio, su generosidad, su valentía, su don… y agradece lo que recibes.
- Genera **espacios de encuentro** en tu comunidad: Cuida lo que importa. Dedicar tiempo a escuchar, conectar con las personas, empatizar con las situaciones que viven, cuidar el entorno, favorecer la creación de lugares comunes donde encontramos, relacionarnos, reconocernos…
- **Repara en lo que pones en tu mesa**: haz un consumo sostenible, responsable y ético. Consumir de manera responsable. Adoptar por hábitos de consumo sostenible, reutilizar, reciclar, reaprovechar, … Apuesta por las entidades de economía solidaria (Koopera, Kidenda, Lapiko, Fiare, Zaintzalan, …)

ORACIÓN

Señor Jesús,
Tú que bajas hasta "los últimos"
y te haces pobre con quienes sufren,
enséñanos a mirar sus rostros,
aprender sus nombres
y escuchar sus sueños.
Que las personas empobrecidas
no sean solo destinatarias de nuestra ayuda,
sino protagonistas de su historia,
sujetos de esperanza
y evangelizadoras.
Haz de nuestras comunidades
refugio abierto y casa común
donde compartamos talentos,
cuidemos la vida
y nadie quede en los márgenes.
Danos valentía para transformar
leyes, decisiones y estructuras
que generan desigualdad,
y cultivar una cultura del cuidado
y de la dignidad.
Como tantas y tantos santos,
queremos conocer a Jesucristo,
caminar en el Espíritu
y compartir la Buena Noticia con quienes sufren.
Que caminemos en comunidad,
compartiendo aprendizajes
y haciendo posible
la esperanza y la fraternidad.

Oración diocesana para la Jornada Mundial de los pobres. 2026

Jesus Jauna,
azkenenganaino jasten zarana,
eta sufritzen dagozanakaz pobre
egiten zarana,
erakutsi eurei begiratzen,
euren izenak ikasten,
eta euren ametsak entzuten.
Pobreak ez daitezala
gure laguntzaren hartzaile huts izan,
euren historiako protagonista baino,
itxaropenaren eragile
eta ebanjelizatzaile gure artean.
Gure alkarteak benetako gordeleku
eta etxe izan daitezala danontzat,
talentuak batera jarri eta bizia zaindu dagigun
eta inor kanpoan geratu ez daiten.
Emoiguzu ausardia lege, erabaki
eta egiturak eraldatzeko,
eta zaintza eta
duintasunaren kultura lantzeko.
Hainbeste santu eta santak lez,
Jesukristo ezagutu gura dogu,
Espirituarengan ibili
eta pobreei Barri Ona iragarri.

Euren bidelagun izan gaitezala,
eurengandik ikasi dagigula
eta, alkarregaz, egia bihurtu dagigun
itxaropena eta senidetasuna..

2026ko Pobreen Munduko Egunerako Elizbarrutiko Otoitza